

Intrigatan txirikordatuta



Galton kasua

Jatorrizko izenburua: *The Galton Case*

Egilea: Ross MacDonaldek

Itzultzailea: Javi Cillero

Argitaratze urtea: 2006

Argitaletxea: Igela

INMA ERREA

Kennet Millar pertsona 1915ean jaio bazen ere, Ross MacDonaldek idazlea hainbat urte beranduago eman zen ezagutzera. Baina behin hori gertatuta, idazle-izena pertsonari gaina hartu eta arras ezagun bihurtu zen, besteak beste, Lew Archer detektibe pribatuaren pertsonaiari esker.

Kennet Millar Kalifornian jaio zen, eta han berean hil, 1983an, baina bizitza beste anitz lekutan ere egin zuen. Besteak beste, Kanadan –Toronton–, non haurtzaroa pasatu baitzuen, edo Michiganan, non unibertsitate-ikasketak egin baitzituen. Besteak beste, leku horiek aukeratu zituen hain zuzen Kennet Millar-Ross MacDonaldek gaur hizpide dugun *Galton kasua* nobelarako eszenatoki gisara. Protagonista, ordea, edo hobeki esanda, nobela goiti beheiti egituratzen duen pertsonaia nagusia Lew Archer detektibea dugu, MacDonaldek beste eleberririk anitzetan bezala.

Galton kasuan, MacDonaldek labirintu batean barna abiarazten ditu irakurleak, betiere krimenak ikertu eta gizon-emakumeak modu batean edo bestean jokatzera bultzatzen dituzten zioak argitzen saiatzeko Lew Archer detektibearen ahaleginak lagun dituztela. Labirintu fisikoetan bezala, *Galton kasuak* proposatzen duen honetan ere irtenbide aizunak aurkituko dituzte irakurleak, bai eta errealitatearen isla desitxuratuak erakutsiko dizkieten ispilu maltzurak zein korapiloak are nahasgarriagoak bilakatuko dituzten aukera makurrak ere. Horri dena eskaintzen du MacDonaldek nobela honetan, idazleak ongi ezagutzen zuen bere garaiko gizarte amerikarraren deskribapen zehatzarekin batera.

Baina ez da hor agortzen eleberririk hau, istorioak idaztean MacDonaldek ez baitzen konformatzen misteriozko kontakizun hutsak eraikitzearekin. *Galton kasuko* pertsonaiak nobela beltzetako pertsonaiak eite batekoak bilakatzen dituzten eta hain ohikoak diren konbentzionalismoez jantzirik badatozkigu ere, MacDonaldek ez da gelditzen pertsonaien azaleko itxuretan, pertsonaien barnealdera jotzen baitu, eta saiatzen da irakurleak itxuren gibelean ezkutatzen diren grina, sentimendu eta pentsamenduetan murgilarazten.

Detektibeetako nobelak maite dituztenek gustura irakurriko dute *Galton kasua*. Adituek ez baitute alferrik kontsideratzen Ross MacDonaldek idazle amerikarretan maisuetako bat, Dashiell Hammet eta Raymond Chandler handiekin batera, misteriozko kontakizunak osatzerakoan. *The Galton Case* nobela, bestalde, MacDonaldek bestsellerretako bat dugu, *The Moving Target* edo *The Goodbye Look* bezala.

Igela argitaletxeak bere sail beltzean argitara eman berri duen euskarazko bertsioak fidelotasun handiz lekualdatzen dizkigu nobelako giroa eta gorabeherak, bai eta MacDonaldek pertsonaien jokabideen gainean egindako interpretazioa ere. Javi Cilleroren itzulpenean filme batean bezala ikusten ditugu islaturik MacDonaldek 1959an argitara emandako kontakizunean hain modu grafikoan aletutako gertaerak eta deskribatutako pertsonaiak eta giroa. Izan ere, Ross MacDonaldek istorioak behin baino gehiagotan erabili izan dituzte, zinerako zein telebistarako filmeak ekoizteko.